

Pernando Amezketarra

Pernando: Etorri, etorri. Aide, aide. Bengaaa. Zatozte hona. Asto hauek... Ai, ai, ai. Zu nora zoaz, etorri hona (*Erreskadan jartzen ditu*).

Joxepa: Gero eta tontoagoa zara... Bi asto erosi eta itsuak biak! Zer egingo duzu orain bi asto itsurekin?

Pernando: (*Ahapean kantari*).

Joxepa: Bai, bai. Axolagabea, axolagabea!... Ni hemen egun guztian lan eta lan eta zu... Ai, ai, ai. Zer zara ba, axolagabea!

(*Bi lagun hurbiltzen ikusten ditu*)

Pernando: Hemen datoz berriz ere bi gizon horiek zorra kobratzera.

Joxepa: Ba, gaur ere dirurik gabe gaude gu.

Pernando: Zerbait asmatu beharko dugu. Ogirik ba al dugu etxean?

Joxepa: Bat edo bertze bai:

Pernando: Ekatzu, Joxepa, ekatzu.

(*Baratzean lurperatzen ditu*)

Gizon 1: Jeeuup...

Pernando: Egun on.

Gizon 1: Gaur ere hemen gara, dirurik ote daukazun edo...

Pernando: Sartu sukalderraino ogi eta ardo pixka bat hartzeko, han solastuko gara.

(*Aitzurra hartuta sukaldetik ateratzen da*)

Gizon 2: Nora ote doa gizon hori?

Pernando: Gaurko aski izanen dugu; gehiago behar izanez gero, etorriko naiz.

Pernando: Hemen zeundeten zuek? Goazen etxera ogia eta ardoa hartzera.

Gizon 1: Pernando, ikusi zaitugu ogiak lurretik ateratzen.

Gizon 2: Aitzur hori eman behar diguzu, gu ere ogirik gabe ez gelditzeko.

Pernando: Eta ni nola bizi zuei aitzurra emanda?

Gizon 1: Begira, Pernando, zorra barkatuko dizugu aitzurra guri emanaz gero.

Pernando: Hau da nire zoritxarra! Emango dizuet aitzurra eta gu biziko gara nola edo hala artoa eta taloa janez.

Pernando: Agur, Joxepa. Feriara noa.

Joxepa: Zer, astoak saltzera?

Pernando: Halaxe da. Gero arte.

Joxepa: Agur Pernando!

Pernando: (Kantari) Arre-arre mandoko. Bihar Tolosarako, etzi Iruñerako. Handik zer ekarriko, Zapata ta gerriko. Laralalalala.

(Bidean attonburuxkak hartzen ditu)

Pernando: Soooooo, astoak... Izkina honetan geldituko gara... Sooo. Hemen, bai, hemen. Hatoz hona!

Eroslea: Ieeeepa Pernando.

Pernando: Kaixo!

Eroslea: Kaixo, asto horiek saltzeko al dituzu Pernando?...

Pernando: Halaxe dauzkat ba...

Eroslea: Ea, ea. Ez daukate itxura txarra... Ea, ea. Ez, ez! Aizu ez al dute akatsik?

Pernando: Akatsik? Ez, ez denbora askotxoan elkarrekin ikuilu berean egon direla eta elkar ezin ikusia, besterik ez.

Eroslea: Elkar ezin ikusia?

Pernando: Bai, elkar ezin ikusia.

Eroslea: Hori besterik ez baldin bada...

Pernando: Hara!... Elkar ezin ikusia, besterik ez...

Eroslea: Beno, Pernando, zenbat?

Pernando: Hogei euro bakoitza.
(Kantari) Txin txin, txin txin. Diruaren hotsak. Horretzek ematen dit,
Maitia, bihotzian poza. Txin txin, txin txin...

Pernando: Egun on

Ostalaria: Baita zuri ere.

Pernando: Gosez amorratzen dagoen gizon bat asetzeko modurik bada etxe honetan?

Ostalaria: Gose denari jaten emateko gaude gu hemen.

Pernando: Bazkari ona nahi nuke.

Ostalaria: Bai, bai... Nahi duzuna. Jar zaitez, jarri hemen.

(Bapo bazkaldu ondoren)

Pernando: Nondik atera duzu ardo hau! Nola ausartzen zara ur zikin hau zure bezeroei ematen?

Ostalaria: Zer duzu, Pernando? Zer duzu hain haserre jartzeko?

Pernando: Haserre? Jarriko ez naiz ba! Ardoa eskatu eta zikinkeria hau ekarri?

Ostalaria: Aizu, Pernando, hitzak neurtu, eh! Nik ez dizut zuri inongo zikinkeriarik eman.

Pernando: Zikinkeriak, bai, zikinkeriak!

Ostalaria: Kontuz gero zer esaten duzun. Hobe zenuke pilatuta daukazun zorrak ordaindu eta isil-isilik egongo bazina.

Pernando: Nola egongo naiz ba isilik zerrikeria hau ikusita? Latsun irentsi dut attonburuxka bat ardo tragoan!

Ostalaria: Zer attonburuxka eta zer arraio ! Zoratu egin zara ala?

Pernando: Zoratu ez, itsututa egon beharko nuke hau ez ikusteko. Hurbildu zaitez pixka bat eta begira ezazu. Zer da hau?

Ostalaria: Ez da posible!

Pernando: Eta zenbat ote daude hemen botila barruan? Sinisten al duzu orain?

Ostalaria: Sinestezina da!

Pernando: Jakina! Putzuko ura nahastu diozu ardoari eta ur zikinarekin batera attonburuxkak ere ardotan bota dituzu.

Ostalaria: Begira, Fernando, egia esango dizut. Sekula ez diot botatzen. Gaur, halabeharrez, bota diot ur zurrusta bat ardoari; baina iturriko ur garbi-garbia. Nik ez dakit attonburuxka horiek nondik sortu diren.

Pernando: Zuk nahi duzuna esango duzu, baina hau ez dago horrela uzterik. Auzitara eramango zaitut.

Ostalaria: Mesedez, Fernando! Lur jota utziko nauzu hori eginez gero. Bion arteko trato bat egingen dugu.

Pernando: Trato? Zer trato?

Ostalaria: Begira, orain arte zor dizkidazunak eta gaurko bazkaria barkatuko dizkizut ez badiozu inori hemen gertatu denaren berri ematen.

Pernando: Ados, jauna. Gaurkoan onartuko dizut, baina izan dadila ardoari ura nahasten diozun azken aldia.

Ostalaria: Jakina, jakina, Fernando

(Ostatutik atera eta...)

Eroslea: Benga, mugi. Asto madarikatuak... Fernando, Fernando....

Pernando: Zer nahi duzu? Kontxo. Zer nahi duzu?

Eroslea: Baina gizona... Zer asto saldu dizkidazu?

Pernando: Oso bikainak dira.

Eroslea: Itsuak dira... Ekatzu berriz dirua eta hartu asto zahar hauek!

Pernando: Ez, konpañero, ez, ez, ez... Astoak erosi baino lehen nik argi eta argi erran nizun ezin zutela elkar ikusi.

Eroslea: Bai zera.

Pernando: Bai zera, bai zera! Hala ere erosi egin zenizkidan... Orain, hor konpon Marianton... Lan egiteko gauza ez badira lukainka egiteko saldu... Alde hemendik.
(Txistuka). Txin, txin, txin, txin...